

Auditx-Akular: Altzaren etorkizuna jokoan

Ez da atzo goizeko kontua: Altzako nekazaritza gunean etxebizitzak eraikitzeko proiektuak hautsak harrotu zituen aspaldi. Hiru arkitekto taldek proposamenak aurkeztu berri dituzte, Auditx-Akularren etxebizitzak egiteko.

Auditx-Akularrekoa auzi luzea da. Udal Gobernuak 2000. urteko ekainean aurkeztu zuen egitasmoa. Hurrezkerok, proiektuak ika-mika ugari eragin zuen -PSE-EEK eta PPK osatutako Udal Gobernuaren haustura, tartean-. Azkenean, ordea, Udalbatzako alderdi politikoek akordioa lortu zuten iaz; nolako proiektua egin erabakitzeko, lehiaketa publikoa deitzea hitzartu zuten, hain zuten ere.

Idea lehiaketa honetan, 13 taldek parte hartu zuten. Haietatik, Udalbatzak hiru aukeratu zituen: Patxo de Leonek aurkeztutakoa, Mecsa taldearena eta Llanos Masiarena.

Dagoeneko, zenbait alderdi politikok hautua egin dute. PSE-EEK eta IU/EBK Patxo de Leonen egitasmoaren alde egin dute, "proiektu integratzailea baita eta Landarro kontuan hartu baitu". EAJ-EAK eta PPK, ordea, PSE-EEren eta IU/EBren jarrera kritikatu dute. EAJ-Earen ustez, bi alderdi hauek hausnarketarako beharko lukeen fasean iritzia eman dute. Baga Boga, aldiz, hiru egitasmoen aurka egin du, "altzatarren iritzia kontuan hartu gabe egin dituztelako".


Hiru egitasmoak ezagutarazteko, Altzako Casares kultur etxean erakusketa dago urriaren 8ra arte. Kultur etxeko arduradunek diotenez, "erakusketak jakin-min handia piztu du, eta jende asko etorri da". Erakusketa atariko liburua da horren adibide. Iradokizunetarako liburu horretan, denetarik idatzi dute. Batzuek proiektu baten edo besteren alde egin dute, baina iritzi gehienak hiru egitasmoen aurkakoak dira: "Altza izeneko infernu honetan zenbat politikari biziko diren jakin nahiko nuke...", idatzi du batek.

Hamaika iritzi

Aipatu erakusketa baliatuta, IRUTXULOK Altzako hainbat lagunekin hitz egin du. "Llanos Masiaren proiektua gustatu zait, horretxek zaintzen baitu gehien ingurumena", esan digu emakume heldu batek. Putzuzulo-ko bizilagun batek ez du iritzi

bera: "Patxo de Leonena dut gustukoena. Llanos Masiarena, aldiz, ez dut gogoko: ez ditu Putzuzulo aldeko etxeak errespetatzen". Zenbat buru, hainbat aburu.

Elizasu parkeko bizilagun bat Auditx-





"Altza osoa biziberrituko duen plana behar dugu"

Altza XXI Herri Ekimeneko Kide Agustín Rodríguezekin Auditx-Akularrez hitz egin dugu.

Zer iruditzen zaizkizue aurkeztutako hiru proiektuak?

Gure ustez, oztabaida ez da hiru honen artean zein aukeratu izan ere, hiru proiektuek kutsatutako abiapuntua dute. Udalak baldintza jari baitzituen. Auditx-Akularrean mugatzea, batetik, eta etxebizitza asko eraikitzea, bestetik. Beraz, guk ez dugu aurrebaldintza horien arabera egindako egitasmoak onartuko.

Hala ere, aldaketarik ikusi al duzue lehen aurkeztutako proiektuarekin?

Ez, hiru egitasmoek Altzako gaur egungo arazoak murrizten

diotelako. Altza oso-osoan berrantolatuko lukeen planteamendua behar da. Altzak, 60ko eta 70eko hamarkadetan, espekulazio berritza jasan zuen, eta orain garaia hartan egindakoa pailatzen ari gara. Politikariek ahalik eta lasterren eraikitzea dute helburu, hau eskundeetarako domina nahiko dute. Baina, horren ordez, Altza osoa biziberrituko duen planteamendua orokorra behar dugu.

Zuek Auditx-Akular parke bihurtzea proposatu zenuten.

Guk Aisia eta Osasun Parkea proposatu dugu. Auditx-Akular eta Landarorako. Atari zabaleko gune lekuak, bolatokia, frontoiak, ponic erako gunea, aldiontokia... Altzako eta Pasaiako herriarteko gune berdea eskaini nahi diegu. 840

sinadura lotu genituen, eta Udalean erregistratu genituen. Dena dela, alderdi politikoek idealista izat jo zuten proposamena. Gure ustez, ordea, beraien proposamena da idealista: gehiago eraiki ondoren, etxebizitzaren prezioak behera egingo duela diote. Azken urteetan, eraiki eta eraiki besterik ez dute egin, baina prezioak eten gabe gora egin dute.

Aurrera begira, nolako urratsak emango ditu plataformak?

Hiru proposamenean aurka egingo dugu, eta horietarako, hainbat bide jarraituko dugu. Ez dugu onartuko, etxer gaitzekin dagoen herri honetan, eraikitzea gehiago inposatzea. Lehenago, bertako bizilagunengan izango duen eragina aztertu behar da.

MECSA PROIEKTUA:

• Egilea: Marcial Echenique (Mecsa taldea)

1 • Etxebizitzak: 3.044

- Haietatik:

2.132 (%70) babes ofizialekoak

456 (%15) tasatutakoak

456 (%15) libreak

2 • Espazio librea: 486.200 metro


karratu (parkeak, lorategiak eta plazak)

3 • Errepide sarearekiko loturak: N-1 eta A-8aren bidez, eta Oreretarekin, Esnabidetik

4 • Landarro mendia ez luke ezabatuko

5 • Pasaiara begirako behatokia

6 • 12 solairuko dorreak Hirigunea izeneko eremuan



Homogeneotasuna apurtuz

Mecsa taldearen proiektuak ez luke Landarro mendia ukitutako. Eta horixe da, hain zuzen nabarmentena. "Beste egitasmoetan, Auditx-Akularreko topografia, malkartsua, arazo dela dirudi. Landarro mendia erauzi nahi dute, eta bertako lurra plataforma lau eta artifiziala osatzeko erabili. Hori astakeria hutso da", dio Eduardo Leira arkitekto madrildarrak. Ondorioz, mendi-mazeletan eta tonto

urretan etxeak eraikitzearen aldekoak dira: "Hau bezalako topografia batean, egoskerkeria litzateke kale zuzenak ezahin nahi izatea, zelai lau batean bageunde bezala".

85 hektarea honen erdia baino gehiago, espazio libreak egiteko erabili nahi dituzte. "Parkeak eta berdeguneak etxebizitzak eraikitzea bezain garrantzitsua da", esan du Leirak.

Akularren bertan footing-a egiten ikusi dugu. "Nik Auditiz-Akular bere horretan utziko nuke. Hala ere, bi alaba ditut, eta badakit etxebizitzaren arazoa larria dela Donostian. Agian, nire alabek bertan bizi beharko dute etorkizunean... Kontuak kontu, ez dut uste proiektu honek etxebizitzaren arazoa konponduko duenik",

adierazi digu.

Zalantzarik gabe, proiektuak, batez ere, Altzako nekazaritza gunetako bizilagunen artean izango du eragina. "Aukeran, nahiago nuke ezer ez egitea. Dena dela, nik baserrian jarraitzea erabakita nuen, eta Donostian gainera. Izan ere, proiektuak bertatik bertara saldu nahi ditugu",

dio Kastillun baserriko bizilagun batek. Azkenean, Udalak A-8 autobide ondoko lur-sail bat eman die laborantzarako, eta Kastillunekoek baserriari eutsi ahal izango diote. Baserritarrak proiektuez ere hitz egin digu: "Patxo de Leonena ez dut gogoko, errepidea baserri aldamenetik pasatuko litzatekeelako". Eta Auditiz Akularrek etxebizitzaren arazoa konpontzen lagunduko al du? "Hainbeste etxebizitza hutsik egonda, etxe gehiago eraikitzea ez da irtenbidea", esan digu Kastilluneko semeak.

Azken hitza, Udalbatzak

Iritziak iritzi, Auditiz-Akularren etxebizitzak eraikitzeko prozesuak aurrera darrai. Izan ere, datorren hilean irabazlea hautatzeko prozesua abiatuko da. Hiru proiektuez iritzia emateko, baloraziorako batzordea eratu dute. Batzorde hau 25 lagunek osatzen dute: alkateak, Udalbatzako alderdietako ordezkariak, Hirigintza Sailko teknikari batek eta Etxebizitza Patronatuko zuzendariak, besteak beste. Dena dela, Udalbatzak erabaki beharko du, azkenean, nor den lehiaketako irabazlea.

Ondoren, irabazleak proiektua zehaztu egin beharko du. Eta herritarrek iradokizunak eta arrazoibideak aurkeztu ahal izango dituzte. Azkenik, Udalbatzak behin-betiko egitasmoa onartu beharko du. Prozesu luzea izango da, beraz.



LLANOS MASIA PROIEKTUA:

- Egilea: Llanos Masia-ren taldea
- 1 • Etxebizitzak: 2.839 eta 3.840 bitartean
 - Haietatik:
 - %70 babes ofizialekoak
 - %20 tasatuak
 - %10 libreak
- 2 • Espazio librea: 278.000 metro karratu
- 3 • Bide-loturak: Sartu-irtenak, bi glorieten bidez
- 4 • Txingurri Gainan (Intxaurrendon) esku hartzea aurreikusi da
- 5 • Landarron, oraingoz, ez da ezer eraikitzea aurreikusi

Garaiera txikiko eraikinak

Javier Zubinaren arabera, "guk egindaoko lana hiri-bilketa besterik ez da. Pasaiako portua eraikitzea akala ez eraikitzea proiektua baldintzatuko baitu". Ondorioz, momentuz behintzat, Landarron ez eraikitzearen aldeko hautua egin dute.

Altzako futbol zelai ondoko Txingurri Gainan, berriz, berebiziko garrantzia eman diote. "Eremitu honek Altza eta Intxaurrendon arteko lotura ahalbidetzen duelako", dio Zubinjak.

Proiektuak badu habarmentzeko beste ezaugarri bat: Altza zaharra egitasmoan integratu nahi du, eta honerelarako Altza kalea ezinbestekotzat jotzen du. Horregatik, Miraballes baserri inguruan eraikiko lukeko gehienbat.

Etxebizitzek hirai solairu izango litzateke, gehienez. "Hala ere, etxebizitza gehiago nahi izanez gero, eraikin askotan beste solairu bat gehitu liteke, eta beraz, 2.000 etxebizitza beharrean, 3.000tik gora loruko genituzke".

Kronologia

2000ko ekaina: Udal Gobernuak Audituz Akularreko proiektua aurkeztu zuen.

2002ko martxoa: Udalbatzaren osoko bilkuran PSE-EE besterik ez zen egitasmoaren alde agertu. PPK ez zuen proiektua

babestu eta gobernu ituna apurtu zen.


2003ko iraila: Udal Gobernuak lehiketa publikoa deitu zuen, baina oposizioak aurka egin zuen. PSE-EEren eta EAJ-EAren arteko negoziazioak hasi ziren.

2003ko urria: PSE-EEK eta EAJ-EAK hitzarmena aurkeztu zuten. Gerora, IU/EBK eta PPK bat egin zuten akordioarekin.

Aukera ezberdinak

Patxo De Leonek hiru aukera mahai gainaratu ditu, eta aukeraren arabera etxebizitza kopurua ere aldatu egingo litzateke. Dena dela, 2.230 eta 3.500 bat etxebizitza izango lirateke beti. *"Hiru aukera aurkeztu ditugu, tehiaketan aukera bat baino gehiago proposatzea eskatu baitzuten"*

Proiektu honen arabera, 225.000 metro karratuko plataforma sortuko litzateke Alizako hirigunearen hego-ekialdean, plataforma hau osatzeko. Landarri menditik aterako lukete lurra. Landarri enpresa parkea egingo litzateke, ekonomia merkataritza eta industria jarduerak egiteko.



PATXO DE LEON PROIEKTUA

• Egilea: Patxo de Leon-en taldea

1 • Etxebizitzak

• I aukera: 3.500 etxebizitza

- Haietatik:

2.846 (%81) babes ofizialekoak

294 (%9) tasatutakoak

360 (%10) libreak

• II aukera: 2.945 etxebizitza

- Haietatik:

2.378 (%80) babes ofizialekoak

249 (%9) tasatutakoak

318 (%11) libreak

• III aukera: 2.230 etxebizitza

- Haietatik:

1.926 (%86) babes ofizialekoak

304 (%14) libreak

2 • Espazio librea: 357.440 metro karratu

3 • Bide-loturak: Pasaiaiko saihesbideko Las Mercedes-eko glorietatik eraikiko litzatekeen errepidearen bitartez. Beste aukera bat zuzenean A-8 errepidearekin lotzea da.

4 • Kirol azpiegiturak: 40.000 metro karratu Eguzkitzan (kiroldegia, estali gabeko igerilekua, futbol zelaia eta atletismo pista)

5 • Ikastetxe berri baterako 60.000 metro karratu

6 • Landarri industrialde bihurtzea